



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

## 2016KO URRIAREN 31KO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Premiazko bilera berezia.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2016.10.31  
**Ordua:** Goizeko 12:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.  
Zinegotziak:  
Mentxu Peña Lizarazu and.  
Ander Almandoz Indakoetxea jn.  
Igor Ugalde Salazar jn.  
Juan M. Gonzalez Burguete jn.  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Iñigo Sarrias Zoco jn., lanagatik.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

1.-Kontu Korrontearen kreditua hartzeko onespena.

Ikusirik aztergaiaren premia eta beharra, zinegotziak, aho batez, bilera egitea erabaki dute.

### **1.-KONTU KORRONTEAREN KREDITUA HARTZEKO ONESPENA.**

Arantzako Udalak 2016ko mendiko lanak bukatu ditu. Lan horiek Nafar Gobernuko diru laguntza dute, Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiak emandako 2016ko ekainaren 30eko 593/2016 ebazpenaren bidez.

Diru laguntzak arautzen duen deialdiaren arabera, (115/2016 ebazpena, otsailaren 17koa, Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiak emana) azaroaren 3a baino lehen ordainketa frogatzen duten faktura eta dokumentu guztiak igorri beharko dira. Laguntzak ordainduko dira deialdiko lanak egin direla egiaztatu ondoren eta horiek baso eta ingurumen eta arloko baimenari egokitu zaizkiola egiaztatuta.

Kontuan hartuz Excavaciones Mikel Ubiria S.L. enpresaren faktura ordaindu gabe dagoela.

Ikusirik Caixabak S.A. enpresak egindako proposamena, 40.000,00 euroko kreditua emateko aipatutako lanak ordaintzeko.

Aztertu ondoren kredituaren baldintzak eta ezaugarriak.

Ikusirik Udaleko Idazkariaren aldeko txostena, gaur egungo zorra ez duelako gaitzen gastu arrunten %110, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Caixabank S.A. enpresaren 40.000,00 euroko kontu korrontearen kreditua poliza onartzea, bertan aurkeztutako baldintzen arabera, eta Nafarroako Gobernuko diru laguntzarekin amortizatzeko baldintza pean.

2) Lesakako Notaritzan aipatutako poliza formalizatzea, Alkateari ahalmena eman hori sinatzeko.

Bertzerik gabe, goizeko 12:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,

Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

The image shows a circular official stamp in blue ink. The text around the perimeter of the stamp reads "AYUNTAMIENTO DE URDAX" at the top and "1987" at the bottom. The center of the stamp features a coat of arms. To the right of the stamp, there is a handwritten signature in blue ink that appears to read "Miguel".